



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Bat bakarra da zuen maisua”

2023ko azaroaren 5a  
Urteko 31. igandea (A)

### Mateo 23, 1-12

Honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: “Legemaisuek eta fariseuek Moisesen irakatsiak adierazteko eginkizuna dute. Saia zaitetze, beraz, haiek esaten dizueten guztia betetzen; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak lotu eta besteei leporatzen dizkiete, baina beraiek ez dute atzamar bat ere mugitu nahi. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak eraman ohi dituzte bekokian eta borlatxo luzeak jantzietan; gogoko dituzte jaiotorduetan mahaiburuak eta sinagogetan lehen aulkiak; gogoko dute plazetan jendeak agur egitea eta guztiak ‘maisua’ deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori zuei ‘maisua’ deitzen, bat bakarra baita zuen maisua, eta zuek denak senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori ‘aita’, bat bakarra baita zuen aita, zerukoa. Eta ez utzi ‘gidari’ deitzen ere, bat bakarra baita zuen gidaria, Mesias. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu.

Esaten dabena ez dabe egiten. Jainkoaren ordezkariak, bere bizitzaren testigantzat bete behar dau iragarten dauan Jainkoaren egiazko esana.

## BIHOTZ BERRITZEKO JARRERA

Jose Antonio Pagola

Profeta baten haserreaz mintzo da Jesus. Jendeari eta ikasleei egin dien hitzaldia kritika gogorra da Israelgo buruzagi erlijiosoen kontra. Laurogeigarren urte inguruan idatzi zuen Mateok kristau-elizako arduradunak antzeko jokabidean eror ez zitezen.

Oroitzen ahal ditugu gaur Jesusen agiraka horiek era baketsuan, bihotz-berritzeko jarreran, polemika antzuetarako inolako asmorik gabe? Jesusen hitzak gonbita dira gotzaintzat, apaizentzat eta eliz erantzukizunen bat duten guztientzat, geure jarduerari begiratu sakon bat eman diezaiozun.

«*Diotena ez dute egiten*». Inkoherentzia da gure bekaturik handiena. Ez dugu bizi predikatzen duguna. Badugu boterarik, baina autoritatea, izen ona falta zaigu. Geure jokabideak gezurtatzen gaitu. Gure biziera ebanjelikoagoa balitz, kristau-elkarte askotan aldatuko litzateke giroa.

«*Zama astunak leporatzen dizkiote jendeari... baina berak ez daude prest, bultza egite aldera, hatz bat mugitzeko*». Halaxe da. Sarritan, oso zorrotzak eta hertsia gara besteentzat, baina ulerkor eta bihozbera geuretzat. Geure eskabideekin jende xumea estutzen dugu, baina ez diogu errazten ebanjelioa onartzea. Ez gara Jesus bezalako; bere zama arin egiten saiatzen zen hura, zeren xumea eta bihotz-apala baitzen.

«*Egiten duten guztia jendeak ikus ditzan egiten dute*». Ezin ukatu dugu ezen oso erraza dela geure irudia zainduz bizitzen, besteen aurrean ia beti «itxura ona» nola emango. Ez gara bizi isil-gordean ikusten duen Jainko horren aurrean. Arreta handiago ematen diogu norberaren izen onari.

«*Lehen eserlekuak dituzte gustuko eta ohore-aulkiak... eta kalean agur egin diezaieten*». Lotsa ematen du aitortzea, baina gustukoa dugu hori. Tratu berezia eman diezaguten nahi izaten dugu, eta ez haurriedu bat gehiagori bezalako. Ba ote da gauza barregarriagorik kristau-elkarteak begirune bereziaz eta bereziaz tratatu dezan bila dabilen Jesusen testigu bat baino?

«*Ez utzi jendeari zuei maisua deitzen... ezta gidari ere... zeren bat bakarra baita zuen Maisua eta Gidaria: Kristo*». Ezin argiagoa da ebanjelioaren agindua: uko egin tituluei, Kristori itzalik ez egiteko; gidatu fededunen arreta harengana soilik. Zergatik ez du ezer egiten Elizak hainbat eta hainbat titulu, lehentasun, ohore eta dignitate behingoz ezabatzeko, Jesusen aurpegi apala eta umila argiago ager dadin?

«*Ez deitu aita lurreko inori, zeren bakarra baita zuen Aita, zerukoa*». Jesusek Aita titulua hain bakarra, hain sakona eta hain bihotzekoa du, non ez baitu erabili behar inork ere kristau-elkartean. Zergatik uzten dugu kontrakoa egiten?